

Eliztar maiteok

Gaur eguerdian Vatikanok, Espainian duen nuntziaturaren bidez, jakinarazi du nire izendapena Donostiako Elizbarruti maite horretako Administratzaile apostoliko gisa. Berri hau argitara ematean nire lehenbiziko asmoa zuei idaztea izan da, zuei nire sentimenduak eta Donostiako Eliza osoa zerbitzatzeko gogo bizia adieraztearren.

Lehenik eta behin Frantzisko Aita Santuari nire esker ona agertu nahi diot, izendapen honek suposatzen duen konfiantzarengatik. Duela aste batzuk, *Ad Limina Apostolorum* bisita egiterakoan, bera agurtzeko aukera izan nuen eta, berriz ere, Eliza zerbitzatzeko gogo adierazi nion, beti egiten saiatu naizen moduan. Elizaren zerbitzuan jarraitzearen ondorioz jasotzen dut gaur izendapen hau. Misioa ematen duen Jaunak berak hura burutzeko grazia emango du.

On Jose Inazio Munillak hamabi urte hauetan eskeinitako zerbitzua eskertu nahi dut ere. Berarekin partekatu ahal izan ditut Donostiako Elizbarruti honetan bizi izan dituen pozak eta itxaropenak eta bere gain utzitako eginkizuna betetzeko egin dituen ahaleginak. Gaur hasiera eman dio bere ministerioari Orihuela-Alicanteko Elizbarrutian. Fruitu apostoliko ugariekin eta bihotz-pozarekin lagun diezaiola eskatzen diot Jainkoari.

Aita Santuak nire eskuetan utzi duen zeregin hau zuei zerbitzatzeko irrika biziarekin jaso dut. Bai eta zuetariko askok egiten duzuen lanean konfiantza jarritz: garai honetan eta gizarte honetan Elizaren misioarekin bat eginik Ebanjelioaren berri ona zabaltzen duzuen laikoengan konfiantza jarritz, bizitza aktiboan edo kontenplatiboan Jainkoak munduari dion maitasuna aldarrikatzen duzuen erlijiosoengan konfiantza jarritz...

Eta zuei, elizbarrutiko apaiz, diakono eta seminarista maiteoi, itxaropen hitz bat luzatu nahi nizueke. Egia da aurrera atera behar dugun lanak gainditzeko gaitzela, bai, baina Jaunaren hurbiltasunari esker eta konfiantza osoa Berarengan jarritz gero, bere erreinua gure artean gauzatzea posible dela sinesten dugu.

Hilabete barru Gipuzkoako eta Nafarroako zaindari diren Loiolako san Inazioaren eta Xabierko san Frantziskoren kanonizazioaren laugarren mendeurrena ospatu behar dugu. Gaur hartzen dudako zerbitzu honetarako bien laguntza eta bitartekaritza eskatzen dut une honetan. Gure Ama ona den Arantzazuko Ama Birjinak zaindu gaitzala.

Nire anai maitasunarekin eta nire bedeinkapenarekin.

+ Francisco Pérez

Iruñeko artzapezpikua eta Tuterako gotzaina

Donostiako Administratzaile Apostolikoa